



LAS DOS *Verdades*  
de Jokin Oregi-rena  
EZIN DUT *egia* ESAN

Patxo Talera | Eneko Olasagasti | Eneko Olasagasti | Reyes Moleres

LAS DOS VERDADES \_ EZIN DUT EGIA ESAN  
de Jokin Oregi-rena

Una historia de amor, donde se funden el desamor y el deseo.  
Una historia de hoy, urbana y universal, que transcurre frente a un mar infinito.

Maitasun istorio bat, desamodioa eta desioa uztartzen dituen, hunkigarria.  
Egungo istorio bat, urbanoa eta unibertsala, itsaso amaigabe baten aurrean gertatzen dena.

Estreno en euskeraz: 10 Noviembre 2006.  
Dentro del Festival Internacional  
de Teatro de Santurtzi.

Estrenaldia euskaraz: 2006ko azaroaren 10ean.  
Santurtziako Nazioarteko Antzerki  
Jaialdaren barruan.

Una producción de **Art Escenario**  
**átcan**  
www.artcan.com

Bonaketa - Distribución  
**Teatrofrot**  
Maïta Arrese  
www.teatrofrot.com

Espektakua suberendatuta por  
**EUSKO IRLEGIARITZA** **GOBIERNO VASCO**  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
**Seranteko**  
FUTURO ARKHOA  
Haberriak eta Kulturak

# Ezin dut egia esan

Jokin Oregi

*“Orduan jakin nuen egia bi zeudela, eta haietako bat hobe zela isilean gorde”*  
Albert Camus.

## Lehen atala

A.

*Emakume bat (INES) presaka atera da etxe bateko terrazara. Goibel dago. Gaua da. Hiriko burrundaia apaldu da. Hogeitamar urte beteak ditu Inesek. Terrazan, aurretiaz ikusi ez dugun gizona bat dago (MIKEL), neskaren adin beretsukoa.*

MIKEL. (Isilune luze baten ondoren) Hobeto?

INES. (Buru makur) Primeran...

MIKEL. Hitz egiterik nahi?

INES. Ez, nahiago ez. (Inesek buelta eman eta mutilari begira jarri da) (Maitekiro) Utz nazazu bakarrik, mesedez.

MIKEL. Hori al da nahi duzuna?

INES. Bai, hobe duzu alde egin.

MIKEL. (Emakumeari irria sorrarazi nahian) Zuk gonbidatu nauzu ba hona...

INES. (Irri) Sentitzen dut.

MIKEL. Ez ba, gau osoan ez da egon gauza interesanteagorik.

INES. Deituko dizut eta hitz egingo dugu, ados?

MIKEL. (Atsekabe printza batekin) Urtebete pasa da zure azken deia jaso nuenetik...

INES. Urte eta erdi zuk deitu zenidanetik... Horrek zerbait esan nahi du, ez duzu uste?

MIKEL. Ondo da, banoa hala nahi baduzu.

INES. Hobe da horrela.

MIKEL. Hobe da horrela.

*Mikel ez doa inora.*

INES. Ez zoaz?

MIKEL. Besteekin itzuliko zarela hitz eman behar didazu aurrena. Egizu negar nahi beste, egizu garrasi eztarria urratzeraino (urratu arte), leku aproposa duzu hau horretarako...Baina itzuli.

INES. (Terrazatik beheko kalera begira. Isilunea.) Itzuli egingo naiz. Denok dakizue itzuliko naizela. Koldok atsegin du ni umiliatuta ikustea itzultzen naizen bakoitzean. Badaki egunen batean ausartuko dela maletak hartu eta etxetik alde egiten, baduela horretarako nahikoa indar. Horrela boteretsu sentitzen da. Dagoeneko ez nau aguantatzen. Horixe da egia, badakizu beraz.

MIKEL. Eta zuk?

INES. Ea maite dudan? (...) Sekula ez didate galdera hori egin. Koldok berak ere ez. (...) Koldok okela gordinegia mahaira atera duenean zutaz oroitu naiz. Oraindik ere gorroto diozu okela gordinari, ala?. Koldo tematuta dabil azken boladan ahalik eta gordinen jan behar den kontu horrekin... Zure esaldia gogoratu dut: Inoiz ez dut okela gordinik jango, baliteke gustatzea eta.

MIKEL. Pisua naiz gero.

INES. Ez dut esaldi horren esanahia sekula ulertu.

MIKEL. Ez duelako ezer esan nahi. Gustuko dut esaldi zentzugabeak esatea, besterik gabe. Ume-umetatik dudan afizioa da. Norbaitekin nagoenean isiluneak ezin ditudalako jasan gertatzen zait.

INES. Horretan badugu antza biok.

*Une horretan beste gizon bat dator (KOLDO). Koldok berrogeitamar urte inguru ditu, betegabeak halere. Mikel ondoan izango duen arren, ez du ikusiko ez entzungo. Inesek ez dio Mikeli begiratuko aurrerantzean, eszena hau bukatu artean behintzat.*

KOLDO. (Minduta) Ederki, lortu duzu nahi zenuena. Berriro ere lagunarteko afariko izar bihurtu zara.

INES. Ez nuen espero nire bila etorriko zinenik. Senar kezkatuaren plantak egin behar zenituen zure unibertsitateko lagun aspergarriaren aurrean? Edo haren emazte panpoxa inpresionatzeko egin duzu?

KOLDO. Badakizu? Alde egin dute guztiek. Bakarrik gaude zu eta biok. Dagoeneko gure gonbidatuak ez dira larritzen zure gorabeherekin. Inor ez da geratu zure eszena txalotzeko.

INES. Garai batean barre egiten zenuen ba “eszena” horiekin...

MIKEL. Esaterako bere kotxe gainera igota zurekin ateratzeko erregutu zenionean...

INES. Atsegin zenituen...

MIKEL. Zoriontsu egingo zenuela zin egin zenion ohiuka, ez zegoela munduan zoriontsuago egingo zuen emakumerik...

INES. Konturatu naiz zelan begiratzen zenion.

KOLDO. Ez esan txorakeriarik! Gaixo zaude, ez al zara ohartzen? Ez da zentzuzkoa, ez da normala norbaitek zure lagun Luciaren koadroa kritikatzegatik jarri zaren moduan jartzea.

INES. Zure laguna ere bada, ahaztu egin al duzu?

KOLDO. Ez, Jainkoarren.

INES. Eta zer egin nezakeen ba, ezin dut jasan etxera datorren edozeinek gure koadroak kritikatzeko hastea, zer dakite horiek?, Lucia ez zegoen ondo koadro hori margotu zuen garaian eta gainera...

KOLDO. Beraz onartzen duzu ez dela koadro borobil-borobila.

INES. Ez dut ba onartuko, ondotxo dakit hori, baina horrek ez dio axola, koadroak ez dio axola...Luciak bai ordea, koadro zoragarriak, kilikagarriak

margotzeko gai zen Lucia... Eta halere, dagoen dagoenean egin zuen, ez zuen apurtu, edo ezkutuan gorde, ez zion bizkarra eman... Ezin izan zuen hobeto egin, besterik gabe...(...) Badakizu zergatik erosi nion Luciari? Koadroa beregandik urruntzeko. Ez dakit ondo egin nuen, ez dakit. Margotu zuen azkena izan zen. Harrez geroztik ez du bakarra ere pintatu, bakar bat ere ez.

KOLDO. Zergatik jokutzen duzu haren amatxo izango bazina bezala? Zergatik uste duzu hain ahula dela?

INES. Ez da hori egia...

KOLDO. Luciak guk biok adinako indarra du.

INES. Badakit...

KOLDO. (...) Goazen barrura, Ines. Hotz handia egiten du.

MIKEL. Ahaztu egin du nola itzuli zinen beregana, harremana hautsi eta egun gutxira, lehen aldia zen zuon artekoa bertan behera uzten zenutela. Etxeko atarian egon zinen haren zain, eskaileretan eserita. Ilea buztita zenuen, egun hartan euria ari zuen eta. Oinak berriz, hotzak.

INES. (...) Aitari bisita egin diot gaur.

KOLDO. (...) A... nola dago?.

INES. (Tristeziak jota) Larrosa baten pareko.

*Badoaz. Mikel bakarrik geratu da oholtza gainean.*

ILUN

B.

*Egurrezko ataria oholtzaren atze aldean, ikusten ez den etxe bateko atzeko sarrera dena. Handik proszenioraino hondartza eta aurrerago (Ikusleak dauden tokia) itsasoa. Atarian emakume bat dago (LUCIA), egurrezko eserlekuan eserita. Luciak hogeitamar urte beteak ditu.*

*Mikel atarira irten eta handik hondartzara abiatu da. Buelta hartu bezain laster konturatu da Lucia hor dagoela, aurretiaz ez da ohartu ere egin. Argazki kamera atera du.*

MIKEL. Begiratu itsasorantz, Lucia, haratago, horizontera...

*Argazkia egin dio.*

LUCIA. (Emozio izpirik erakutsi gabe) Inesek deitu du. Bisitan dator.

MIKEL. (Emozioari eutsi nahian) Primeran. Aspaldi ez gara harekin egon... Eta Koldo?

LUCIA. Ez dit hura aipatu, bakarrik datorrela suposatu dut.

MIKEL. (Isilune luzea) Zer egingo duzu gaur, margotu egingo duzu?

LUCIA. Bai, baliteke. Zergatik galdetu didazu?

INES. Zera... Pintzelei hautsa kentzen ikusi zaitut lehen eta...

LUCIA. Ez naiz konturatu begira zeundenik... (...) Berriak erosi beharko ditut, pintzeletako bat puskatu egin zait. Eta zu? Esan behar al diezu behingoz nagusiei bukatu duzula itzulpena?

MIKEL. Ez, oraindik ez. Errepasoa eman behar diot.

LUCIA. Primeran dago barren.

MIKEL. Hobe, denbora gutxiago beharko dut.

LUCIA. Badirudi dagoeneko ez duzula atsegin zure lana...

MIKEL. Batzuetan bai... Testuren batek erakartzen nauenean...

LUCIA. Ez duzu interesgarririk aurkitzen ala?

MIKEL. Bai, baina gero eta gehiago kostatzen zait horietako bat aurkitzea.

LUCIA. Exijenteegia bihurtu zara.

MIKEL. Lehen ere hala nintzen.

LUCIA. (...) Arrantzan egingo duzu?

MIKEL. Bai, baliteke.

*Mikel itsasora begira jarri da. Lucia etxean sartu da.*

MIKEL. (Bere kautan) Ines...

*Orain Ines agertu da Lucia desagertu den leku beretik.*

INES. Ez duzu txirrina entzun?

MIKEL. Ez. Hemendik ez dago entzuterik. Esan dit Luciak etorriko zinela. Pozten naiz. Arrantzara joateko asmoa dut, etorri nahi?

INES. Eta Lucia?

MIKEL. Margotu nahi omen du, baina ez dakit, beti esaten du gauza bera eta gero...

INES. Ze ondo hala balitz...

MIKEL. Pozten nau zu hemen ikusteak. Zure falta izan dut.

*Ines lotsak harrapatu du derrepentean.*

INES. Zergatik ez didazu hots egin?

MIKEL. Itzulpenarekin nahikoa lan izan dut eta...

INES. (Ausart) Ez dut uste ondo aterako litzatekeenik.

MIKEL. (Harrituta) Zer?

INES. Gure artekoa.

MIKEL. (Goibel) Zalantza bera dut nik ere... zera... ondotxo dakidala esan nahi dut.

INES. Asko maite zaitut eta zugandik gertu behar dut egon baina...

MIKEL. (Haren jarioa eten du) Nik, aldiz, nahiago zenbat eta urrutiago, zu maitatzen jarraituko badut.

INES. Nire beldur zara?

MIKEL. (...) Bai, ezerk ez nau beldurtzen zuk adina, zure isiluneei beldur diet, pentsatzen duzun horri beldur diot, esango duzunari, esateko erari, esaterakoan begiratuko didazun moduari, edozein keinuk egin diezadake min, min zorrotza da, liztorraren ziztadak bestekoa. Niri min emateko gaitasun harrigarria duzu. Bai, jakina, beldur handia dizut...baina maite dut izu-ikara hori, maite dut dakidalako, egunen batean, bat-batean, derrepente, eskutik hartu eta zurekin eramango nauzula, korrika, belar luzeko soroetan barrena, antxintxika, nekeak jota lurrera jausi arte, eta han geratuko gara kuzkurtuta, elkarri begira... loak hartuko gaitu...elkarri begira.

INES. Maitasuna ez al zen orduantxe agortuko?

MIKEL. Ikusten? Min eman didazu orain ere.

*Mikel etxera hurbildu eta barruruntz egin du so.*

MIKEL. Luciak badakiela uste duzu?

INES. Ez dakit. Esan egingo diozu?

MIKEL. (Akituta) Ez, zertarako?. Zatoz, goazen arrantzan egitera, itsasoa primerakoa dago.



*Gizona atarira joan eta han dagoen saski batetik arrantzarako tresneria atera du.*

INES. Ondo da, zorabiatzen ez banaiz, gaitzerdi.

MIKEL. Itsas ertzeko puntu jakin bati begiratzen badiozu ez zara zorabiatuko. Inportantea da lurra beti begibistan edukitzea.

INES. Arrantzaleak joaten dira ba haratago, begibistan ura besterik ez duten lekuetara...

MIKEL. Eurentzako kalte...

*Badoaz etxea atzean lagata. Lucia ageri da orain atarian, Mikel aurkitu nahian dabil, edonora begira. Mikelek zabaldu duen saskia ikusi du eta jakin du arrantzara joan dela. Ines agertu da atetik.*

LUCIA. Arrantzara joan da, aparejoak eraman ditu...

INES. A ze inbidia, ni ez naiz gai itsasontzian ibiltzeko, itsasoa bare-bare egonda ere ez.

LUCIA. (Itsasora begira, kezkatuta) Gaur ordea ez dago itsaso onik, haizea dabil eta itsasoa zakartu egingo da... Laster itzuliko da, badaki etortzekotan zinela.

*Ines hondartzara jeitsi eta oinhutsik jarri da.*

INES. Bilbotik atera naizenetik ez nuen besterik buruan. Hau gozatua!

LUCIA. (Irrifartsu) Zoro halakoa, hoztu egingo zara.

INES. Hona etortzen naizen bakoitzean etxea saldu eta hemen berria erosteko gogoia pizten zait...Baina ez dakit ba, hemengo errepideek ez didate ongietorri berorik egiten, bigarren aldia da gurpila zulatzen dudana.

LUCIA. Benetan?

INES. (Esku zikinak erakutsiz) Bai ba, hemendik zazpi bat kilometrora. Auto bakarra ere ez da geratu niri laguntzeko, zer deritzozu?

LUCIA. Inguru honetan oso lagun gutxi bizi gara, mesfidati samarrak guztiak, batez ere ezezagunekin.

INES. Oinez etortzeko gogoia izan dut. Baina beldurtu egin naiz, baten batek autoa lapurtuko ote zidan beldurra...

LUCIA. Hara, beldurra! Mikeli antzeko zerbait gertatu zitzaion orain pare bat hilabete, baina alderantziz. Autoarekin arazoak zituen gizon bati laguntzeko geratu zen. Ba, hara, agureak Mikel hurbiltzen ikustean aterkiarekin mehatxu egin zion bakean uzteko aginduz. Gizona zeharo ankertu omen zen. Mikelek autoa eramango ziola edo uste izan zuen hark, edo eraso egingo ziola karterako sosa kentzeko, batek daki...Mikelek buelta erdia hartu eta han utzi zuen zaharra bere arazo eta izuarekin.

INES. Horrelakoak hiri handietan bakarrik gertatzen zirela uste nuen...

LUCIA. (esaldia azpimarratuz) Ez dakit zerk beldurtzen gaituen gehiago, bakardadearen isiltasun jasangaitzak edo eta hiriko burruna zekenak. En fin, kontua beldurra edukitzea da.

INES. Mikelek beldur handiagoa dio isiltasunari.

LUCIA. Zergatik diozu hori?

INES. Ez dakit ba, noizbait hala esango zidan.

LUCIA. Niri ez dit ba halakorik aitortu. Berdin dio, Mikelek gauza bat behin esaten duenean dagoeneko mundu osoari esan diola uste izaten du.

INES. Hasi al zara margotzen?

LUCIA. Ez, oraingoz ez. Denbora behar dut...

INES. (Zintzo) Oso guapa zaude.

LUCIA. Zu bai guapa... beti bezala.

INES. Mila esker. (lagun) Piper beteak ekarri dizkizuet, Bilboko goxoenak.

LUCIA. (Zirraraz) Egañanekoak?

INES. Ez ba, denda berria ireki dute etxe azpian, hauek askosaz hobeak dira...

LUCIA. (sinesgogor) Egañanekoak baino hobeak?

INES. Zalantzarik gabe, alde ederra. Mikeli ere gustatzen zaizkio piper beteak?

LUCIA. Mikeli dena gustatzen zaio. Begira, han dator. Nola dago zure aita?

INES. (Kopetilun) Azkenetan.

LUCIA. Sentitzen dut.

*Mikel arrantza egitetik dator. Pozarren dator arrain handia eskuan dakarrela.*

MIKEL. Zer iruditzen? Gaur arraina jango dugu, ez galdetu ze izen duen ez dakit eta, ez dut inoiz halakorik ikusi. *Grosse légume* deitu ahal diogu, izan ere, Frantziako uretan hartu dut eta potoloa bada behintzat...

*Mikelek musu eman dio matrailean Inesi.*

MIKEL. ...Gurekin bazkalduko duzu, ez da?

INES. Kontua da egun batzuk hemen egitea nahiko nukeela, traba handiegirik ez badizuet egiten behinik behin.... Koldo eta biok utzi egin dugu gure artekoa.

*Luciak mesfidati begiratu dio Inesi. Mikelek lurrean iltzatu du begirada.*

ILUN

## Bigarren atala

### Egia begietan. (A)

*Ines itsas ertzean dago, eserita, Lucia margotzen ari den koadroarentzat modelo lanetan.*

LUCIA. Zer dala eta utzi duzue?

INES. Giroa usteltzen ari zen gure artean, oxigeno garbia behar genuelako akaso...

LUCIA. Behin betiko?

INES. Hirugarrena beti izaten da definitiboa, ez da?... Ez duzu zertan errudun sentitu behar, zuk aurkeztu zenidan Koldo baina horrek ez zaitu arduradun egiten. Bukatu duzu?

LUCIA. Oraindik ez. Konponduko duzue, zuok elkarrekin behar duzue egon.

INES. Koldo bezalakoa naizela uste duzu?

LUCIA. Ez ba, esan nahi dut elkarren beharra duzuela, ondo konpontzen zaretela, alegia. Biok zarate oso...

INES. Oso...zer?

LUCIA. Exajeratuak. Ez dakit, ez nago ziur hori ote den hitz aproposa... esan nahi dut muturrekoak, asko exijitzen diozue elkarri... Hori ez da txarra, nik ere gauza bera egiten dut... Mikel ere oso exigentea da. Bada bai.

INES. (...) Ez dut Koldorekin itzultzeko inolako asmorik. Agian aita aterako dut egoitzaetik eta pisu bat alokatuko dut. Badago bat dendatik oso hurbil. Herenegun ikusi nuen, azkar ez banabil hartuko du beste norbaitek, lekua primerakoa da... garestiegia, seguru. Lanetik hiru minutura egongo nintzateke... Terrazarik ez du, horixe pena. Leiho ugari ditu, baina oso estuak

guztiak. Sekula fijatu gabe nengoen etxe horretan. Bezero batek eman zidan haren berri, narruzko sofa beltza erosi zuen bezeroak. Gusto txarra zuen gizajoak, gero!

LUCIA. Umea eduki nahi zenuela uste nuen...

INES. Dagoeneko ez nago hain ziur. Bukatu duzu?

LUCIA. Oraindik ez. Nekatu egin al zara?

INES. Apur bat. Gero jarraituko dugu?

LUCIA. Nahiago orain.

INES. Ondo da. Pozten naiz margotzen hasi zarela. Banekien egun hori iritsiko zela noizbait.

LUCIA. Hor eserita ikusi zaitut eta zu margotzeko nahiko indar nuela otu zait...halere, margoak ez du inolako espresiorik...huts egin dut.

INES. (Txantxa giroan) Depresioak jota nagoelako da hori. Badakizu? Edozelako depresioren detonantea beti da zerbaiten edo norbaiten heriotza, horrexegatik dolu aldia besterik ez da. Dolualdia bukatu bezain laster irrifartsu eta espresioan oparo margotu ahal izango nauzu.

LUCIA. Ez da zurea errua, ez. “ Margolariak ezingo du inoiz ilunabarraren misterioa eskuratu misterio hori ez badago bere baitan”.

INES. Nondik atera duzu esaldi hori?

LUCIA. Mikelek esan zidan, egiten ari zen itzulpen batetik ateratakoa da, txekiar egile batena nonbait...Talenturik ez dudala esateko modu sotila, ez duzu uste?

INES. Ez esan halakorik, Mikelek konfidantza handia du zugan. Behin zera esan zuen, inork ez zituela margotzen zuk baino hobeto egun euritsuak.

LUCIA. Inoiz ez dit niri halakorik esan.

*Bat-batean, Mikel agertu da Luciaren atzeko aldetik. Luciak ez du ikusiko, ez eta entzungo ere, Mikelen eta Inesen arteko solasaldia.*

MIKEL. Idatzi nizkizun gutunak irakurri zituenetik daki Luciak maite zaitudala. Ez zuen inoiz aitortu, baina badakit irakurri zituela. Irakurri zituen nik hala gertatzea nahi izan nuelako, aurkituko zituen tokian utzi nituelako...Ez nituen apurtu, edo sutara bota.

INES. Sekula ez nituen gutunok jaso.

MIKEL. Ez nuen bidaltzeko adorerik bildu.

INES. Nola dakizu hain ziur irakurri zituela, esan egin al zizun?

MIKEL. Ez ba, ez zidan ezertxo ere esan. Margotzeari utzi zion.

INES. Hori izan zen, beraz, arrazoia...! Nirekin minduta dagoela igarri diot.

MIKEL. Inbidia dizu.

INES. Nik bai berari, seguru nago oso zoriontsu izango zaretela elkarrekin..

LUCIA. Inbidia dizut, Ines.

INES. Zer?

LUCIA. Indartsua zarelako, sendoa zarelako dizut inbidia. Senarrarekin harremana eten duzu eta hala ere, ez dirudi axola dizunik... Mikel nigandik aldenduko balitz hil egingo nintzateke, hil.

INES. Ez du hori egiteko arrazoirik...

*Mikelek mun egiten dio lepo inguruan Inesi. Ines ez dago eroso eta gainetik kendu nahi du.*

INES. Ez, Mikel, mesedez...

*Mikel atarira abiatu da bizkor, han pilatuta dauden sutarako egurreta bat hartu eta badoa Luciarengana, hari kolpe emateko asmo sendoarekin.*

INES. Mikel, geldi! Ez, ez egin horrelakorik, nahikoa da!!!

*Ines jarri da Mikelen aurrean eta hura geraraztea lortu du. Mikel lasaitu dela dirudi, burumakur dago orain. Berriro ere Inesi begiratu dio.*

MIKEL. Zer nahi duzu orduan? Esaidazu behingoz, erotuko gara biok bestela. Asper-asper eginda naukazu.

INES. Utzi hori bere tokian.

MIKEL. (...) Barkatu.

INES. Barkatu zuk niri, gertatuko dena gertatuko dela ere.

LUCIA. Zer gertatuko da orain?

INES. (Luciari) Nola?

LUCIA. Zer egingo du Koldok bakarrik, zer egingo duzu zuk?

MIKEL. Zergatik galdetu dizu hori? Ez diozu ba esan etxea alokatuko duzula, aita egoitzatik aterako duzula...?

INES. Koldo ondo moldatuko da bakarrik... Aurkituko du laster neska laguna, agian honez gero badu bat...

LUCIA. Horregatik utzi duzu?

MIKEL. Esaiozu ezetz.

INES. Ez.

LUCIA. Eta zuk?

INES. Nik?

MIKEL. Ba al duzu nobiorik?

LUCIA. Ba al duzu ezkutuko nobiorik?

MIKEL. Esaiozu baietz.

INES. Ez ba. Denda pareko kafetegian lan egiten zuen batek behin baino gehiagotan eskatu zidan telefono zenbakia...

LUCIA. A bai?

INES. Luzaro egon zen ni sarean harrapatu nahian...Hogei urteko gaztetxo.

LUCIA. Ez nuen haren berririk.

MIKEL. Nik ere ez.

INES. Inork ez zuen jakin... Behin bere neska lagunarekin zihoala topo egin genuen kalean. Diosala egin nion baina hark ez zidan aurpegira begiratu ere egin. Handik aurrera kafetegian sartzen nintzen guztietan, ezkutatu egiten zen gizajoa. Patetikoa zen egoera, batez ere ni jelosiak jota nengoelako. Handik gutxira betirako desagertu zen, Madrilera alde egin omen zuen mutilak...

MIKEL. Nik ez dut Madrilera ihes egingo.

INES. Badakit. Zu geldirik egongo zara, ezer egin gabe, ezer esan gabe, mutu, ea norbaitek zure bizitza harrotzen duen zain.

*Egur zatia hartutako tokian utziko du Mikelek eta badoa etxe barrura, buru makur.*

INES. (Ahots gora) Barkatu, Mikel, ez da zurea errua... Mikel!

*Ines Luciaren ondora doa koadroari bistadizoa emateko. Luciak erakutsi egin dio.*

INES. (harrituta benetan) Hara, zoragarri...!

LUCIA. Egitan?

INES. Lucia, jeniala da! Baina zer dela eta margotu nauzu ume? Distantzia handiegia dago simurrak ikusteko, ala?

LUCIA. Gorde egingo dut.



INES. Ez diozu Mikeli erakutsiko? Festa antolatu behar dugu. Hirira itzuli bezain laster erakustoki baten bila hasiko naiz...

LUCIA. Zuretzat nahiko zenuela uste nuen, alokatuko duzun pisu horretarako...

INES. (Jokuz kanpo) Jakina, oso ideia ona da. Bikaina.

*MIKEL arrantza egitetik dator. Poltsa bat dakar eskuan.*

MIKEL. Oraingo honetan huts egin dut. Bakarra ere ez dut harrapatu. Arraro sentitzen zara halakoetan, itsasoan bakarrik, badirudi uretan ez dagoela ezer, bizi arrastorik ez, haitzak eta area hondoan, besterik gabe... Hartu dudan bakarra lau txapapote ondar izan dira. (Poltsan dakarrena erakusten die emakumeei) Gezurra dirudi baina oraindik ere hor daude.

LUCIA. Eskuak zikin dituzu, ez al zen ba arriskutsua kaka hori ikutzen ibiltzea?

MIKEL. Ez da ezer, ez nuen ba han utziko.

LUCIA. Kaka lekuz aldatzeak ez du arazoa konpontzen... Eskuak garbitu beharko zenituzke...

INES. Begira zure emaztearen lana.

*Luciari eskuetatik hartu dio koadroa eta Mikeli erakutsi dio.*

MIKEL. Autoerretratua, polita.

INES. Autoerretratua? Oker zaude, ni naiz.

MIKEL. A bai? Noiztik ezagutzen duzu Lucia?

INES. Ba ume umetatik, zer ba...? (Konturatu da halako batean) Egia da barren, zu zara, nola ez naiz lehenago konturatu?

LUCIA. (Deseroso) Gorde egingo dut.

*Lucia etxera doa koadroa eskuan hartuta. Mikelek Inesi begiratu eta badoa, emaztearen atzetik.*

INES. Zer moduz, Mikel?

MIKEL. Ondo... primeran. Eta zu?

INES. Ez dakit. Arraro xamar.

*Mikel geldi dago neskari begira.*

INES. Oraindik ezin izan dut zure azken itzulpena irakurri... Hasi nintzen baina...

MIKEL. Ez dio axola.

INES. Pozik egongo zara, ez da? Kritika ezin hobeak jaso zituen...Hala esan zidaten behintzat.

MIKEL. Bai, hala da... Eskuak garbitzera noa...

INES. Ondo.

*Mikel etxean sartu da. Ines bakarrik dago. Sakeleko telefono baten zarata-hotsa entzuten da. Inesek badaki telefonoa gertu dagoela nonbait eta bila hasten da hondarretan. Aurkitu du, lurrean botata. Hartu eta belarrira eraman du. Eszenatokiko beste aldean Koldo agertu da, bera da deika ari dena.*

KOLDO. Bai? Lucia? Lucia?

*Ines mutu geratu da.*

KOLDO. Lucia, neu naiz Koldo. Entzuten didazu?. Kobertura arazoak dituzue? Zera, berdin dio... entzuten al didazu? Nik ez dut piperrik aditzen. Inesen bila nabil, agian zuk badakizu non dagoen, deituidazu mesedez. Koldo naiz, deitu mesedez!

*Koldok telefonoa eskegi eta badoa agertu den toki beretik. Inesek ere eskegi du berea. Telefonoari begira geratu da, botoiak zanpatu eta hura aztertzen ari da. Lucia dator.*

LUCIA. Zer da hori?

INES. (serio) Sakeleko telefonoa. Zurea.

LUCIA. Hara, galduta nuelakoan nengoen.

INES. Norbaitek hondarrera gogor jaurti izan balu bezala zegoen ba... Zuk bota duzu?

LUCIA. Gogaituta nauka telefonoak.

INES. (zorrotz) Azken deia nik egindakoa zen, hona nentorrela esateko egin nuena...

*Lucia Inesen ondora iritsi eta telefonoa kendu dio eskutik.*

LUCIA. Mikelen bila etorri al zara?

INES. Zer diozu...?! Lucia!

LUCIA. Zatozen bakoitzean Mikeli begiak piztu egiten zaizkio. Jabetuko zinen honez gero haien dizdiraz. Aldartearen ere aldatu egiten zaio, ez dago hain lasai, txiste eskasak orduan egiten ditu, koitadoak... Ohartu naiz zuk ere igarri diozula.

INES. Lucia...

LUCIA. (Bereari eustiz) Zuk ere maite al duzu?

INES. Lucia nik ez nizuke hori egingo, sekula ez...

LUCIA. Ze erantzun mokordo da hori!

INES. Nik ez dut baina...

LUCIA. (eten) Esaidazu ez zaudela harekin maiteminduta. Zin egidazu burutik ezabatu duzula, bihotzean ez duzula harendako tokirik, ez diozula inoiz itxaropen tantarik eskeini...

INES. Lucia, absurdoa da esaten ari zaren hori, mesedez! Nahikoa da!

LUCIA. (...) Mikelek maite zaitu.

INES. Lucia, ez...

LUCIA. Zera uste dut...

INES. Ezin dut ulertu zertan ari zaren...

LUCIA. Ondotxo dakizu.

INES. Baliteke...

LUCIA. Baliteke...

INES. ...zu oker egotea. Agian...

LUCIA. Ondotxo dakizu. Ondotxo dakizu.

INES. (Isilunea) Hirira itzuliko naiz, hobe izango da horrela. Lasaiago zaudenean hitz egingo dugu.

LUCIA. Ez dugu ezertaz hitz egin behar.

*Une horretan Mikel agertu da etxe barrutik, bere sakeleko telefonoa eskuan.*

MIKEL. Koldok deitu dit. Honuntza dator. Oso kezkatuta zegoen, horregatik esan diot gurean zeundela.

*Emakumeek elkarri begiratu diote.*

MIKEL. Zerbait gertatu al da?

INES. Ezer ere ez.

*Lucia etxean sartu da ezer gaineratu gabe.*

MIKEL. Koldo zeharo urduri zegoen, hemen zeundela esatearekin lasaituko zela uste izan dut...baina autoa hartu eta bazetorrela esan dit, eta telefonoa eskegi du. Gaizki egin dut?

INES. Ez, oso ondo egin duzu.

*Ines etxe barrurantz doa.*

MIKEL. Zerbait gertatu da Lucia eta zure artean?

INES. Ezer ere ez, benetan.

MIKEL. Une batez pentsatu dut...

INES. Ez da ezer gertatu, Mikel.

MIKEL. (...) Koldorekin itzuliko zara?

INES. Ez.

*Ines sartu da etxean. Mikel kanpoan geratu da bakarrik, pentsakor.*

ILUN

## **Egia aurpegira. (B)**

*Lucia itsas ertzean dago itsaso zabalera so. Atarira Mikel eta Koldo irten dira. Mikelek keinu baten bidez adierazi dio Koldori Lucia non dagoen. Koldo Luciarengana dator. Mikel etxean sartu da berriro.*

KOLDO. Zer moduz dago nire ikaslerik kuttunena?

LUCIA. Sentitzen dut zu honaino alferrik etorri izana, uste nuen Inesek deituko zizula joan egin dela esateko.

KOLDO. Badakizu nolakoa den Ines...

LUCIA. Nolakoa da ba?

KOLDO. Inprebisiblea oso. Berdin dio, pozten nau etorri izanak, aspaldi zu ikusi gabe nengoen.

LUCIA. Denbora asko, bai.

KOLDO. Ze moduz?

LUCIA. Ongi. Hau leku zoragarria da.

KOLDO. Benetan. Inesek beti esaten du hemen etxea erosi behar dugula.

LUCIA. Ondo legoke. Ines, baina, ez da zuregana itzuliko.

KOLDO. (kezkatuta) Hori esan al dizu? Zer esan dizu?

LUCIA. Zelan unibertsitean? Ziur nago honez gero neskato guztiak lerdea dariela izango dituzula...

KOLDO. Lucia...

LUCIA. Orain ere gonbidatzen dituzu zure ikasleak etxera, zure arte bildumarekin txora-txora eginda uzteko? Birmaniarra zen, ez da?

KOLDO. Korearra.

LUCIA. Barka beza, Korearra. Zure etxera joateko gonbitea egin zenidanean ez nion arreta gehiegirik eskeini.

KOLDO. Puritana peto-pettoa eginda zaude, Lucia, ez doakizu ondo.

LUCIA. Ba banaiz, oso gainera, sinetsidazu, beti izan naiz puritanaegia, aitortzen dut, hori da egia.

KOLDO. (...) Esan al diozu inoiz zu eta biok...?

LUCIA. ...Zu eta biok maitaleak izan ginela zuk hura ezagutu aurretik? Ez, inoiz ez diot esan, konbentzituta nengoen zuk esango zeniola. Ez dakit nola eutsi diozun morboari. Inortxok ere ez daki, Mikelek salbu. Ez duzu ba usteko horregatik utzi zaituela Inesek?

KOLDO. Ez ba, jakina...izan ere, horrek ez luke izango zentzurik, baina badakizu nolakoa den Ines...

LUCIA: Nolakoa da ba?

KOLDO. Apetatsua oso. Aitortuko dizut honuntza nentorrela zuok biok imajinatu zaituztedala, berbetan...Ines hona zergatik etorri den jakin nahi nuen... Badakit lagunak zaretela, Mikel ere haren laguna dela, baina halakoetan, haserrealdietan, badakizu, ahizparen etxera joaten zen eta...

LUCIA. Orain ere haren etxerako bidean izango da, seguru.

KOLDO. Ez dakizu ziur ala?

LUCIA. Ez dit esan.

KOLDO. (...) Banoa ba.

LUCIA. Itxaron, joan aurretik gauzatxo bat erakutsi nahi dizut.

*Lucia etxe barrura doa korrika. Ia talka egin du Mikelekin. Hura hiru garagardo botilakin dator. Koldo dagoen tokira hurbildu da.*

MIKEL. Egarrituta egongo zinela otu zait.

KOLDO. Hala da, mila esker.

*Koldok hartu du berea eta edaten hasi da.*

KOLDO. Zuk ere uste al duzu honek ez duela atzera bueltarik?

MIKEL. Zerk baina?

KOLDO. Inesen eta bion artekoak.

MIKEL. (Buru makur) Batek daki... Ines inprebisiblea da oso.

*Lucia dator. Lehen margotu duen koadroa dakar.*

LUCIA. Zure eritzia jakin nahi dut, ez dit axola gezurra esaten badidazu ere, jakingo dut zure hitzen esanahia aztertzen.

KOLDO. (Denbora behar du koadroa aztertzeko) Zerekin margotu duzu neskatilaren ilea...?

LUCIA. Galipota da, txapapotea.

KOLDO. Hara! Interesantea. Koadro gehiago duzu?

LUCIA. Batekin ez al da nahiko?

KOLDO. Jakina, oso ondo dago. Zer deritzozu zuk Mikel?

MIKEL. Ba zera uste dut nik, Luciaren pintura irakasle ohia izateko ez diozula asko lagundu emandako erantzunarekin.

KOLDO. Koadroaz duzun eritzia galdetu dizut, ez besterik.

MIKEL. Oso ondo dagoela uste dut.

KOLDO. Nik ere hala uste dut. Koadroa ona da, Lucia, benetan, bizitasun handia du, kontrasteak ederrak dira, batez ere alde honetan, itzala hedatzen den honetan, aparrarekin egin duzun jokoa harrigarri ona da, galipotarena, ene eritziz, azaleko elementua da, soberan dago, ikutu infantilegia ematen dio



koadroari.(...) Ez baduzu koadro gehiago pintatzeko asmorik ergela zarela esango nizuke. Talentu handia duzu.

LUCIA. (Zintzo) Mila esker, maisu.

KOLDO. (Zintzo) Plazerra izan da. Banoa, ez dizuet enbarazu egin nahi, laster ilunduko du. Eskerrik asko garagardoagatik.

*Badoa. Luciak hartu du bere garagardo botila eta aretan eseri da. Koadroa alboan utzi du. Mikel Luciaren ondoan eseri da.*

MIKEL. (Isilunea) Margotzen jarraitu beharko zenuke.

LUCIA. Hala egingo dut.

MIKEL. (...) Zer dela eta joan da Ines?

LUCIA. Begira itsasoari, zoragarri dago, “el mar, y cuanto mar, se sale de si mismo a cada rato, dice que si, que no, que no, que no...”

MIKEL. Ez didazu erantzun...

LUCIA. Lehengo batean Nerudaren beste olerki bat irakurri nuen. Egurrean idatzi dezaten nahiko nuke... Egongelan jarri ahal dugu... “...aquí estamos al fin, sin soledad y solos, lejos del desvarío de la ciudad salvaje” Gero jarraitzen du... “...Hasta que en ella se elevaron, gemelos, la razón y el amor, como dos alas. Así se construyó la transparencia.”

MIKEL. Ederra da.

LUCIA. Ba...!, ez zen horrela, ez dut ondo gogoratu. Gainera luzeegia da egurretan idazteko... Ahaztu ezazu.

MIKEL. Zer duzu?

*Lucia zutitu da. Etxerako bidea hartu du baina Mikelek besotik hartu dio.*

MIKEL. Lucia, mesedez...

LUCIA. (Negar malkotan) Mikel, maitea, maitea...

*Ihes egin nahi du baina Mikelek ez dio uzten.*

LUCIA. (Mikel besarkatuz. Negarrari eutsi ezinda) Laztana, maitea, nere zoriona zara, jakingo bazenu zenbat maite zaitudan... Zenbat maite zaitudan, laztana...

MIKEL. Lasai,...

LUCIA. Maitea, bihotza...

MIKEL. Ondo da, maitea, lasaitu mesedez.

*Mikelek laztandu egiten du maitekiro. Lucia bere onera dator apurka apurka.*

MIKEL. Lasai, ondo dago dena, pasa da, maitea.

LUCIA. Ez nazazu bakarrik utzi, inoiz ez, mesedez. Inoiz ez, Mikel, mesedez, esadazu... ez didazu hutsik egingo, ez da?.

MIKEL. Hitza ematen dizut, Lucia, lasai. Hobeto zaude?

LUCIA. Neurekoia naizela uste duzu hori eskatu dizudalako? Esadazu. Nire ondotik joango bazina hil egingo nintzateke. Hil. Ezin dut zu gabe bizi. Pentsatze hutsarekin larritu egiten naiz, arnasa estutu eta ito egiten naiz. Itota hilko naiz, horixe.

MIKEL. Nahikoa da, lasai. Zurekin nago, zurekin nago hemen, ez naiz inora joan. Zurekin nago. Bakarrik gaude zu eta biok.

LUCIA. Oso zoriontsu naiz, Mikel. Zuri esker naiz zoriontsu...

*Ines agertu eta atariko eserlekuan eseri da, bikoteari arretaz begira jarri da. Luciak ez du ikusiko, ez entzungo.*

LUCIA. Guztia hasieran bezala izatea nahiko nuke. Gogoratzen? Elkarrekin joaten ginen arrantzara... eta margotu egiten nuen. Bihar arrantzara joan gintezke, zer deritzozu?

MIKEL. Ondo da, oso ideia ona da.

LUCIA. Gustoko nuen arrantzan egitea... Ondo egiten nuen gainera, trebea nintzen... Beti eskatzen zenidan zurekin joateko. Bilutsik egiten genuen igeri... larrutan ere egiten genuen ontzian, behin edo behin..., gogoan duzu, ez da, ez duzu ahaztu?...

MIKEL. Ez dut ahaztu.

LUCIA. Orain ere halaxe izango dira gauzak, lehenago bezala, ikusiko duzu. (...) Gustatzen zait zurekin hitz egitea. Barkatu negar malkoak. Ezin dut ulertu zer gertatu zaidan. Bat-batean, sabel erdi-erdian korapiloa nuela sentitu dut, bazirudien norbait tiraka ari zela korapiloari helduta, tiraka, barrurantz... pisua astuna balitz legez, hori da, baten batek zerbait pisutsua bihotzetik eskegi izan balit bezala..., aingura!, norbaitek nere barrura aingura jaurti izan balu bezala, eta aingura etengabe doa jausten, zulo beltzean barrena, zulo beltz horrek zurrupatu egiten du, etengabe...burugogor. Eta badirudi desegingo zarela, ezereztatu, ondar bihurtu, ondar ale... (...) Pasa da. (...) Erotu naizela pentsatuko duzu.

MIKEL. Ez ba.

LUCIA. Ez gara gu erotuko elkarrekin egonda, ez gu. Ez dugu umeren beharrik. Zu eta biok bakarrik, inoren beharrik gabe. (...) Zer nahi duzu afaldu?

MIKEL. (...) Arraina dago, garbitu egin dut, hozkailuan dago...

LUCIA. Geratu hemen nahi baduzu, prest dagoenean abisatuko dizut.

MIKEL. Konforme.

LUCIA. Ederki...

*Lucia etxean sartu da.*

INES. (Ataritik, dagoen tokitik altxa gabe) Esan daitekeen gauzarik okerrenea dena lehen bezala izango dela esatea da, ez da?

*Mikelek irri iluna du ezpainean. Ines altxa eta harengana doa.*

INES. Ez diozu esango, ez da? Ez diozu kontatuko zer gertatu zen gure ontzi partikularrean... Bartzelonara altzari bila lagundu zenidan hartan jazotakoa... Ez diozu aitortuko nola ari ziren dardarka zure hankak, eta eskuak... niri bularra ikutzeko ez gauza, zirraren zirrarez. Orain ere dardarra duzu eskuan hurbildu naizelako.

MIKEL. Ezin dut apenas arnasarik hartu. Umezurtz nago, bilutsik, hotzikarak astinduta, zure besoek noiz besarkatuko nauten zain, matraila zure bizkarrean ipintzerik banu... hatzamarrak zure ile artean galtzen diren bitartean...

*Musu. Lucia presaka eta larri atera da atarira. Hitz egiteko ez gauza, izua begietan. Mikel eta Ines banandu dira.*

LUCIA. Jainko maitea, Mikel, Inesek istripua izan du, istripu larria!!

MIKEL. Zer diozu baina?!

*Mikel etxera doa korrika. Ines geldirik dago bere tokian.*

LUCIA. Telebistan esan berri dute, informatiboan, haren autoa zen Mikel, birrinduta zegoen, zisko eginda. Ez dut ondo ulertu esan dutena, bizirik dagoen ere ez dakit!

MIKEL. Nola dakizu haren autoa zela? Baliteke...

LUCIA. Inesen autoa zen, Mikel...!!!

*Biak sartu dira etxean. Inesek buelta erdia hartu eta ikusleei bizkarra eman die.*

ILUN.

## Hirugarren atala.

*Koldo hondartzan dago itxaroten, udako erropak soinean, izerdia bekokian, lore sorta eskuan. Halako batean, lorak hondarrera bota ditu, ez haserre, bai, ordea, goibel. Mikel atera da etxetik. Lipar batez Koldori begira egon eta badoa haren ondora.*

KOLDO. En fin, zer egingo diogu ba? Ez nau ikusi nahi, egia esan ez dit ezer zor. Gutxienez izaera ez zaio aldatu eta horrek pozten nau. (...) Cardiffeko unibertsitatean lan egiteko aukera eskeini didate, eskeintza onartu egingo dudala uste dut. (Txistea egin nahian) Hala ere, margolaritza baztertu egin beharko dut, hango kritikoak anker hutsak omen dira, basa pizti gupidagaitzak, eta okerragoa dena, arrenkuratsuak. Nere fantasietako bat beti izan da uharte batean bizitzea, ba hara, haurtzaroko ametsa bete ahal izango dut. Zuk bete al duzu umetako ametsik, Mikel?

MIKEL. (apal) Ez dakit ba, batenbat beteko zela suposatzen dut.

KOLDO. Ez al zaude ziur?

MIKEL. Denok bizi gara irla batean (esan duen ergelkeriagatik damu da)

KOLDO. “Bide orok itsasoa du helmuga... eta han zain dago heriotza”. Ez al didazu aitortuko?

MIKEL. Aitortu?

KOLDO. Zoriontsu bizi al zara hemen? Atxagak liokeen moduan, “zoriontsu al zarete mugaz bestaldekoak”?

MIKEL. Lekuak ez du zoriontasunarekin zer ikusirik...

KOLDO. Egia borobila, galdera inozoa zen. (...) Hala ere, ez duzu uste andaluziarrak gu baino alaiagoak eta zoriontsuagoak direnik?

MIKEL. Dibertigarriagoak, baliteke, baina zoriontasun kontuetan pareko gabiltzalako susmoa daukat.

KOLDO. Orduan “maitasuna” baino ez zaigu geratzen...?

MIKEL. Maitasuna, besterik ez.

KOLDO. Maitasuna berdin sexua?

MIKEL. Litekeena da. Zuk badakizu hori.

KOLDO. (Bekokiko izerdia batu du zapiaz) Bero nazkagarria.

MIKEL. Tenperaturak gora egingo omen du gainera, hala iragarri dute.

KOLDO. Itogarria da.

MIKEL. Arratsalde partean eraman errezagoa izaten da, hor bestela, itsas ertzean.

KOLDO. Autoko girotzailea izorratu egin zait. Sinestezina..! Bi urte bete berriak ditu autoak, eta hara!.

MIKEL. Barrura joan nahi duzu?

KOLDO. Ez, banoa, berandu egin zait.

*Badoa.*

KOLDO. (Atzera begiratzeke) Eman gorantziak Luciari nire partez. Orain ez zarete hainbeste elkarrekin egongo, ez da? Amigo, ospearen ajeak, badakizu.

*Joan da. Mikelek loreak batu eta etxera eraman ditu. Handik gutxira berriro agertu da. Atariko eserleku bat hartu eta hondartzara jeitsi du, itsas ertzetik ahalik eta gertuen utzi du, betiko errutinan ari dela dirudi. Gero etxean sartu da berriro. Handik gutxira berriro dator besoetan Ines hartuta. Mikelek Ines hondartzara jeitsi duen eserlekuan jarri du, neskak begietara so egiten dio. Eseri ondoren, Ines itsasoari begira jarri da.*

MIKEL. Hemen goxo-goxo egongo gara.

INES. Hotzak nengoen. ( ahoskera ez da zeharo garbia, ezpain mutur bat paralizatuta duelako)

MIKEL. Itxaron.

*Mikelek beste aulki bat hartu du Inesen ondoan jartzeko. Ines kostata dabil hobeto jarri nahian. Mikel bere ondoan eseri da azkenean.*

INES. Ospa egin al du kabroi horrek?

MIKEL. Bai.

INES. Ea betiko den... Horrela ikusi nahi nau hark, barre egingo luke gogotik...

MIKEL. Ines...

INES. Egia da eta, zuk ere badakizu hori... Nire bila etorri dela esan dizu?

MIKEL. Ez, agian Cardiffera joango dela esan dit... lanera.

INES. Ikusten? Ihesean dabil.

MIKEL. Zeren ihesi?

INES. Nigatik balitz..., baina ez da hori arrazoia, porrot egin du eta ihesi doa. Sasi irakaslea izan da beti, bigarren mailakoa... Cardiff, lanpostu hori bera orain bi urte eskaini zioten eta orduan uko egin zion birritan pentsatu gabe, bere karreran atzerapausoa egitea litzatekeela zioen, handiuste halakoak...

MIKEL. Ihes egitea alternatibeetako bat besterik ez da, ez dut uste beste aukera batzuk baino eskasagoa edo okerragoa denik...

INES. (Ironiaz) Egia, badago beste bat, geldirik egotea, ezer egin gabe, goiari eustea, eustea eta sufritzea... laster zerbait, zerbait miresgarria gertatuko denaren itxaropenaz, derrepenteko zeozer, esnatu berritan hor agertuko dena...salbatzaile... bat batean, bizitza berria... (maltzur) Niri halako zerbait gertatu zait.

MIKEL. Ines...

INES. Ez dut erreabilitazioan jarraitu nahi, Mikel.

MIKEL. Ez esan lelokeriarik.

INES. Zein demontre zarela uste duzu, polizia?!

*Mikelek ez du hitzik egingo.*

INES. Sentitzen dut...

MIKEL. Badakit...

INES. Barkatu, Mikel.

MIKEL. Zoaz pikutara, beti berdina egiten didazu.

*Ines barre algaraka hasi da.*

INES. Arrazoi duzu, gaiztoa naiz. Pastilek dute horren errua. Noiz eramango nauzu arrantzan egitera?

MIKEL. Nahi duzunean.

INES. Itsasoan igeri egin nahi dut... marrazorik ez da ibiliko ez da?.

MIKEL. Marrazoak txapapotejale bihurtu dira, ez dute besterik nahi, bizipoza ematen omen die...

INES. Beti zabilta txapapotea gora eta txapapotea behera, pisua zara gero!

MIKEL. Eta zu oso gaiztoa.

*Ines barrez hasi da berriro.*

MIKEL. (Abestu) Galipota, pota, galipota, pota...

INES. (Hau ere kantuan) ...jende andanarekin hondartza itota,  
Galipota, pota, galipota, pota,



Tiro egin eta arranoa bota  
Galipota, pota, galipota, pota,  
Autoen kearekin egingo dut oka...

*Biek barre. Ines serio jarri da, ostera ere.*

INES. Luciak aitortu zidan egia, azkenean.

MIKEL. Zertaz ari zara?

INES. Ez dakit nola ez nintzen lehenago jabetu. Badakit zergatik ez duzuen seme alabarik eduki. Zuk ez zenidan sekula esan.

MIKEL. Luciak hala eskatu zidalako. Ez nuen ondo egin.

INES. Horregatik utzi zion margotzeari, umetokia kendu ziotelako.

MIKEL. Hala da.

INES. Nik uste nuen gurea jakin zuelako utzi ziola margotzeari, Bartzelonan gertatutakoagatik..., harroputza naiz, gero.

*Ines Mikelen eskuaren bila dabil. Haien eskuak bat egin dute. Baina, norbait datorrela eta, askatu egin dituzte eskuok. Lucia da atari aldetik datorrena, oso guapa eta lirain.*

LUCIA. Hara, hemen zaudete, non bestela? Nola ez dut lehenago igarri, "itsaso anaiaren adoratzaileak". Ez al zarete zorabiatu dagoeneko hainbeste joan etorrirekin? Hau zorabioa, jainko maitea.

*Mikel zutitu da eta musu eman dio Luciari.*

MIKEL. Zer moduz, maitea?

INES. Zelan dago Europako margolaritzan jaio den izar berria?

LUCIA. Ez adarrik jo, gero.

MIKEL. Esan al dizute zerbait?

LUCIA. Angelek dioenez, “egina zioke”, baina ez dakit, beldur naiz, aterako ez balitz kolpe handia jasoko nuke. Hain azkar gertatu da guztia.

INES. Ez izan ikaratia Lucia, orain ez.

LUCIA. (minduta) Ez naiz ba, eta hala balitz zuri bost axola.

INES. Nahiago nuke lortuko bazenu. Koldoren ezkutuko ilusiorik handiena Berline bere koadroak erakustea da, hark baino lehenago lortuko duzula jakiteak narrituta nauka zeharo...

LUCIA. Gaur Donostian egon naiz, oinez ibili naiz handik eta hemendik, aspaldiko txokoak bisitatu ditut. Kilikilia sentitu dut, Mikel. Zer moduz hara itzuliko bagina, hirurok joan gaitezke, zer diozue? Berlinekoa aterako balitz, ez genuke etxe hau saldu ere egin beharko.

INES. Koadroak erakustea noiztik da hain errentagarria ba?

MIKEL. Hango erakustazokan parte hartze hutsagatik koadroen erdia erosten dizute...kontratuz.

INES. Hara! Hori diru asko da...

LUCIA. (Inesi) Ez baduzu nahi ez duzu zertan Donostiara etorri gurekin.

INES. (...) Donostia ondo dago.

*Luciaren sakeleko telefonoa zarataka-kantuan hasi da. Hartu du. Beste biak hari begira daude, jakinminez.*

LUCIA. (biei) Ez da Alemaniatik..., sentitzen dut, oraintxe nator.

*Biengandik urrundu da, etxerako bidea hartuta. Barruan sartu da.*

INES. Pozik dago.

MIKEL. Hala da. Merezi zuen. (...) Barkatu, ez nuen hori esan nahi.

INES. Zergatik ba? Nik ere merezia daukat, abiada biziegian nindoan.

MIKEL. Ines... Ondo egongo zara aurki, ikusiko duzu.

INES. Ez dakit ba, nere bizitza pikutara bota dut. Koldorekin huts egin nuen, altzariak saltzen ibiltzea ez dut atsegin, ez lehenago bezala, behintzat... Lehenago bai, gustatzen zitzaidan, batez ere bezeroen etxeetan sartzen nintzenean eta etxea txukuntzen laguntzen nienean... Zenbat bikote zoriontsu ezagutu dudan... Zela egongo dira orain? Elkarrekin jarraituko ote dute? Gure altzariak ondo zainduko al zituzten? (txistea egin nahian) Agian txiki-txiki eginda daude dagoeneko, hango burruken biktima isilak... Bigarren aukerarik egon daitekeela sinesten al duzu, Mikel?

MIKEL. Bai, zergatik ez.

INES. Koldoren ondora itzuli behar dudala uste al duzu?

MIKEL. (Minari gailenduta) Ez dakit ba... Berak maite zaituela dirudi.

INES. (Nostalgia begietan) Nik ere maite izan nuen. Zeharo maiteminduta egon nintzen harekin. Gizon interesantea zen, zentzuzkoa...gehienetan...

MIKEL. (Min egiteko asmoz) Aita baten pare, orduan.

INES. Ez... baliteke. Berdin dio, non geratu da hura guztia?. Portzierto, Mikel, ez eskatu berriro niri barkamenik, ezin dut jasan.

*Lucia dator osterera ere.*

LUCIA. (Nazkatuta) Joan beharra dut, bilera dut Baionan. Afal orduan hemen egongo naiz, hala espero dut behintzat.

*Mikel Lucia dagoen tokira hurbildu da. Inesek ezingo du entzun bien arteko elkarrizketa. Lokartzen joango da besteek hitz egiten duten bitartean.*

MIKEL. Lucia... Ez dut Donostiara itzuli nahi.

LUCIA. Gero hitz egingo dugu horretaz nahi baduzu...

MIKEL. Nahiago orain. Hemen geratu nahi dut, Ines zaindu nahi dut. Leku honek on egiten dio, entzun zenuen medikuak esandakoa... Laster hasiko da oinez ibiltzen...

LUCIA. Eta zer egingo dut nik? Ni hemen geratzea nahi duzu ala nahiago alde egiten badut?

MIKEL. (...) Zurea da erabakia.

LUCIA. (...) Berak ez zaitu maite, Mikel. Hasieran baietz uste nuen, baina orain badakit ez dela horrela.

MIKEL. Badakit. Hori ez da baina importanteena, nik maite dut, horrek du garrantzia.

LUCIA. Azkenean ausartu zara aitortzen!

MIKEL. Sentitzen dut, Lucia...

LUCIA. Bai zera...(gogor) Ez da zuk uste bezain ona, Mikel, orain zure beharra du, baina gero? Gero hala ez bada hor utziko zaitu edozein zabor kontenedoretan botata. Zer egingo duzu orduan?

MIKEL. Dendara joan erropa berria erostera?

LUCIA. (Irri) (...) Zure buruari min egitea gustoko duzu beraz, pozik biziko bazara...ez da? Hori al da zure egia?

MIKEL. Inola ere ez, hobe beharrez ari naiz. Zuretzako ere irtenbide hobe da, gainera orain ez nauzu behar, zuk libre behar duzu...

LUCIA. Zaude isilik, Mikel, mesedez, ixo... Nahikoa da, arren eskatzen dizut.

MIKEL. Ondo da.

LUCIA. Hobe beharrez diozu...(...) Berrero nere ondora etorriko zaren itxaropenari eutsi ahal izango nioke, ala ez?

MIKEL. Batek daki, edonola ere ez litzateke izango guztia lehenago bezela izateko, joandakoa berreskuratzeke, aurrera egiteko baizik, dugunarekin aurrera, atzera begiratu gabe...

LUCIA. Ez dakit gauza izango naizen. Ez dut uste zure zain egongo naizenik.

MIKEL. Egiten duzuna egiten duzula ondo egongo da.

LUCIA. Galdera bat Mikel, aitortu al diozu inoiz Inesi maite duzula? Behingoagatik bada ere gustatuko litzaidake hori esaten entzutea, beste emakume bati bada ere.

MIKEL. Ez dut uste beharrezkoa denik.

LUCIA. (gogor) Jakina beharrezkoa dela, nor zarela uste duzu? Hitz egingo dugu gauean.

*Badoa Lucia. Mikel Inesen ondora itzuli da berriro. Neska erdi lo dagoela ohartu da. Jertsea hartu eta harekin estali du neskaren gerri eta sabelaldea. Neska esnatu egin da nahiz eta oraindik ere ez dagoen zeharo esna.*

MIKEL. Etxean sartuko gara? Jateko zerbait prestatuko dizut.

INES. Ez, nahiago dut hemen geratu. Haize honek on egiten dit... Geratu nere ondoan, mesedez.

*Mikel eseri da lehengo lekuan.*

MIKEL. Ines...

INES. Zer?

MIKEL. (...) Donostiara joatea nahi al duzu?

INES. Eta zuk?

MIKEL. Nik ez.

INES. Ez eta nik ere.

MIKEL. Primeran.

INES. Ederto.

*Ines negarrez hasi da, apal. Mikelek harritura begiratu dio.*

ILUN

## AMAIA

*Udazkena da. Mikel etxetik atera da, galtza marroiak eta jertse beltza soinean. Eskuak igurtzi ditu, hotz egiten du. Etxe barrurantz hizketan hasi da.*

MIKEL. Hotz handia egiten du, eguerdirako uztea hobe dugu, orduan giro hobe egin dezake eta. Zer iruditzen?

INES (OFFean). Nahiago orain.

MIKEL. Ongi da.

*Mikel hondartzara jeitsi eta ataritik aldendu da. Buelta hartu du eta atarira begira jarri da. Ines dator, oinez, halamoduz, trakets, bastoia lagun duela. Lehen ahoskatzerakoan zuen zailtasuna orain ez da hain nabarmena.*

INES. (Kexuka) Ez didazu lagundu behar?

MIKEL. Ez ba, gaur bakarrik egin beharko duzu. Itxaron baina, begira niri, geldi hor.

*MIKELeK argazkia egin dio. Ines hondartzara dator.*

INES. (Pozarren eta duda-mudatan) Zure beso gihartsu eta sendoez ahaztu egin behar dudala esan nahi al du honek?

MIKEL. Tamalez hala behar du.

INES. Ez dakit ba, erreabilitazioaren alde hau ez dut batere atsegin, ez al gabiltza bizkorregi?

*Mikel hurbildu eta musu eman dio ezpainean.*

INES. (Lotsak zipristinduta) Zergatik hori?

MIKEL. Gaizki iruditzen?

INES. (Maiteminduta) Ez, ondo dago.

*Mikelek bastoia kendu dio eta Inesengandik urrundu da.*

INES. Zertan zabilta?

MIKEL. Seguru nago egin dezakezula. Zain naukazu.

*Ines saiatzen da eta lortu du Mikelen ondora iristea. Besarkatu egin dira. Ines emozioak jota dago, bastoia eskuratu du autonomia eske.*

MIKEL. Laster itsasoan igeri egin ahal izango duzu.

INES. Eta orain egiten badugu?

MIKEL. Hotz handiegia egiten du, gaixotu egingo zara.

INES. (Etsita) Zer egingo diogu ba, bizitzan ez dago nahi adina egiterik.

*Biak itsasora begira daude.*

INES. Luciak gezurra esan zizun, Mikel.

MIKEL. (...)

INES. Nik maite zaitut, beti maite izan zaitut. Oraindik ere gogoan dut elkarri eskutik oratu genion lehen aldi hura. Bartzelonako kamarero haren lepotik barre egiteko egin genuen, senar emazte ginela uste izan zuelako. Egia izatea desio nuen, munduak eman ziezagula aukera hori. Senar emazte izan, une batez bazen ere. Zuk ez didazu sekula aitortu, baina seguru nago zuk ere maite nauzula.

MIKEL. Badakizu baietz.

INES. Zergatik egiten duzu negar?

MIKEL. Ez dakit ba, pozaren pozez beharko, ez dut negar askorik egin azken boladan...



INES. Egizu negar ene bihotza.

*Inesek beso artean hartu du mutila.*

INES. Zenbat hilabete egin dut hemen?

MIKEL. Ia zortzi hilabete.

INES. Denbora asko da, ederto zaindu nauzu.

MIKEL. Ez ba, zuk zaindu nauzu ni. Hala da. Lortu ez duzun bakarra nire lanak garaiz entregatu ditzadan izan da. Editorea zeharo aztoratuta dabil kontu horrekin.

INES. (Irri) Guztiok dugu akatsen bat, zurea zure editorea da. (...) Ni berriz, apetatsua naiz eta oraintxe bertan bainua hartuko dut.

MIKEL. Ines...

*Inesek musu eman dio.*

INES. “Udazkeneko bainuak uxatzen ditu katarruak”, ez al zenekien?

MIKEL. Horiek aspaldiko kontuak dira, Prestigea hondoratu aurrekoak.

*Ines itsas ertzerantz doa.*

INES. Pisua zara gero galipotaren kontu horrekin. (Geratu da bat-batean) Mikel, imajinatzen al nauzu haurdun, tripa handiarekin?

MIKEL. (Zirarraren zirraraz ez da ezer erantzuteko gauza)

INES. Nik ere gauza bera uste dut, oso guapa egongo nintzatekeela.

MIKEL. Ines...

*Koldo atera da etxetik. Beltzez jantzita dago hau ere. Kopa bat eskuan duela dator. Ines oraindik ere han dago baina Koldok ez du ikusiko.*

KOLDO. (Apur bat mozkor) Hara, Mikel, aurkitu zaitut azkenean. Zer moduz?

MIKEL. Tira...

KOLDO. Ia... Elizkizuna ederra izan da, benetan... gustatu zait. Oso txukuna. Lucia zure bila dabil.

MIKEL. Berehala joango naiz.

KOLDO. Gertatu dena ez da zure errua, Mikel, Ines imprebisiblea zen erabat, ondotxo dakizu zuk hori...(..) Atsegin dut hilerria, Luciak leku aproposena aukeratu du... Agian zuk aukeratu duzu? (...) Ez dio axola. Hainbeste maite zuen lekuan egongo da, bejondeiola...

*Mikelek Inesi egin dio so, oraindik ere han dago eta. Inesek "adio" esan dio keinu batez, maitekiro, eta desagertu da. Mikelek ari begira jarraitzen du.*

KOLDO. Ezin zuen jasan istripuaren ondorengo sofrikarioa, ezin oinez ibili, dantzarako ezgauza, asko maite zuen dantza egitea...eta igeri egitea, are gehiago...Ez zen guk uste bezain indartsua...guri hala erakusten ahalegintzen zen arren. Bere buruaz beste egitearena anekdota hutsa da, harendako hilda zegoen istripua izan zuenetik, sinetsidazu...

*Lucia atera da orain etxetik. Dolu erropak soinean, hau ere.*

KOLDO. Hemen senarra, Lucia, neronek aurkitu dut. Banoa barrura, oraindik ere ireki gabeko botila bat badagoela uste dut eta. Zera, ez dakit jakingo duzuen baina Inesen aita alaba hil baino hiru minutu lehenago hil egin zen...

LUCIA. (Zur eta lur) Hori berria da...

KOLDO. Inesek ezin izan zuen jakin, baina, badirudi patuak erakutsi nahi zigula hortxe dagoela zelatan, putakumea!

LUCIA. Inesek asko maite zuen aita.

KOLDO. Miretsi egiten zuen. (Mikeli begira) Ez dut uste beste inor hainbeste maite izan duenik.

*Koldo badoa. Lucia Mikelen ondora hurbildu da.*

LUCIA. Zu nirekin Donostiara etortzea nahiko nuke, badakit baina ez duzula eskeintza onartuko... beraz, zera eskatu nahi dizut... pentsatzen aritu naiz eta hona itzuli nahi dut, zure ondora. Ez dizut besterik eskatu nahi, ez dut ezer espero, benetan, baina hemen egon nahi dut, mesedez, toki hau faltan bota dut egunotan...Zera, lo goiko gelan egin nezake...

MIKEL. (Zintzo eta bestearen hitz jarioa etenda) Nik ere zu hemen egotea nahi dut. Etxea beti izan da zurea, nirea bezain beste.

LUCIA. Ni, ordea, dagoeneko ez naiz “zurea”, ez al da?

MIKEL. Ohartu zenidala esan nahi al didazu?

LUCIA. Bai ba, horixe bera. Zuk baino hobeto ezagutzen nuen nik Ines, inguruko guztiok ezagutzen genuen zuk baino hobeto.

MIKEL. Baliteke.

LUCIA. (...) Zera, Mikel, esan al zenion maite zenuela?

MIKEL. (...)

LUCIA. Banekien hala...

MIKEL. (besteak esaldia osatu aurretik) Bai, esan nion.

LUCIA. Zer?

MIKEL. Esan niola, aitortu niola maite nuela.

LUCIA. Eta? Zer esan zuen berak?

MIKEL. Ez zuen hitzik esan. Irrifarre egin zuen, apal, gero begiak itxi zituen... eta hil egin zen.

LUCIA. (Isilune luze baten ondoren) Ez duzu jendea agurtu behar?

*Lucia eta Mikel etxerantz doaz. Sartu da Lucia. Mikelek buelta eman du. Ines agertu da. Dagoeneko ez du bastoirik behar, normal dabil. Elkarri begiratu diote. Mikel etxean sartu da. Ines kanpoan geratu da.*

## **BUKATU DA**